

Imagen de portada / Azaleko irudia:
Agnès Geoffray, ***Nature morte***, série ***Les Suspendus, 2010-2011*** © Agnès Geoffray

2018

# MAPAMUNDISTAS

inmóvil · geldirik

**MAPAMUNDISTAS 2018** GELDIRIK / INMÓVIL

**ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN 22.09—28.10**

# ARKITEKTURA-BEGIA
# ARQUITECTURA-OJO

## SUSANA VELASCO



Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

2018 MAPAMUNDISTAS
inmóvil · geldirik

**ATARRABIAKO PILATEGIA**
Kale nagusia 64, Atarrabia

**BATÁN DE VILLAVA**
Calle Mayor 64, Villava

**PAMPLONA, HUARTE & VILLAVA**
21 de septiembre - 28 de octubre 2018

**IRUÑA, UHARTE & ATARRABIA**
2018ko irailak 21 - urriak 28






La asociación cultural La Caracola agradece a los artistas, a los patrocinadores y a los colaboradores que han hecho posible esta 12ª edición de MAPAMUNDISTAS.

La Caracola kultur elkarteak esker ona helarazten die MAPAMUNDITARRAK 12. edizioko artistei, babesleei eta laguntzaileei.

**Organizador/ Antolatzailea:**

la caracola ASOCIACIÓN CULTURAL

**Patrocinadores oficiales / Babesle ofizialak:**

Nafarroako Gobernua — Gobierno de Navarra

Ayuntamiento de Pamplona — Iruñeko Udala

**Sedes exposiciones & Actividades / Erakusketak eta jardueren egoitzak:**

HIRIARTEA — Centro de Cultura Contemporanea. Ciudadela de Pamplona / Kultura Garaikideko Zentroa. Iruñeko Ziudadela

Huarte

Nafarroako Museoa de Navarra

Mancomunidad Comarca de Pamplona / Iruñerriko Mankomunitatea

upna

civivox — Ayuntamiento de Pamplona

**Patrocinadores / Babesleak:**

Fundación Cajanavarra

Institut Français

"la Caixa"

camplus Pamplona

Miqueleiz

grupoZiur Navarra

Restaurante Japonés TOKIO

coco working pamplona

**Colaboradores / Laguntzaileak:**

frac picardie

Serrería Esparza, S.L.

Ville de Rennes

MECNA

Proyecto de interés social según la nueva Ley Foral de Mecenazgo Cultural (más información en www.mecna.es).

Gizarte-intereseko proiektua, Kultur Mezenasgoaren Foru Legearekin bat (argibide gehiago www.mecna.es webgunean)

# Inmóvil

La inmovilidad no existe sin el movimiento, como el silencio no existe sin las palabras. Una cosa nace de la negación de la otra: no moverse, no hablar. Es un no hacer. Hay algo corporal y mental en ello. La fuerza de gravitación se ejerce sobre el cuerpo que se une a la tierra, que se mantiene quieto, como un árbol que echa raíces. Puede que sea una necesidad, puede que sea un deseo. También puede que sea un gesto político, un decir no con el cuerpo. Me acuerdo de Bartleby, el personaje Herman Melville, de su figura erguida en medio de una oficina desangelada, "como la última columna de un templo en ruinas". También me acuerdo de las sentadas del 15M, de los cuerpos ocupando el espacio público. La inmovilidad se vuelve un acto de resistencia contra el poder. Pero ahora pienso en las colas de personas que esperan horas en las aceras para renovar sus papeles; esta vez, ejercen poder sobre ellas. El cuerpo se manifiesta como un medio para el control, pero también para el rebelión.

¿Pero qué pasa en la esfera íntima? Una persona yace debajo de un árbol mirando las nubes. Nada extraño, está descansando. Pero si la misma persona se tumba en un banco en una calle concurrida, su postura llama la atención. Las urbes están preparadas para el movimiento. Circular, trabajar, gastar, comprar. Todo fluye: las personas, las mercancías, el dinero. Los que se detienen son los que no participan en la sociedad, son vagabundos, parados o jubilados, es decir, perdedores o ancianos. Mientras tanto, los que triunfan, los que corren, sufren ataques de ansiedad. Stop. Según estudios biológicos, el cerebro del hombre contemporáneo es casi idéntico al cerebro del hombre de Cromagnon. Una vez que satisfacía sus necesidades básicas, aquel hombre no necesitaba trabajar, tenía mucho ocio. En aquella época tuvo lugar la evolución de la especie gracias a una explosión de creatividad. Los neurocientíficos lo han estudiado: al cerebro le viene muy bien la inactividad, es cuando mejor funciona.

En el campo de arte, la idea del no hacer está muy desarrollada, como crítica social, como crítica del mercado del arte, o también como metodología para crear. En 1968, el artista francés Robert Filliou elaboró el *Principio de Equivalencia*, que aplicó a objetos, acciones o ideas. Según esta regla, los tres estados -bien hecho, mal hecho, no hecho- son las partes equivalentes y constituyentes de cada cosa. El mundo que conoció Robert Filliou no es el mundo de ahora, pero queremos rescatar sus ideas sobre el valor del error, del no hacer, o de la pereza como estado de ánimo que favorece el flujo de los pensamientos.

**MAPAMUNDISTAS 2018** ha invitado a nueve artistas que han desarrollado en su obra estos conceptos y que tratan la suspensión desde diversas perspectivas. Su trabajo se podrá ver en este inicio del curso, en formato de exposiciones y de talleres, en varios espacios culturales de la ciudad de Pamplona. También se complementará con un ciclo de cine de autor sobre la misma temática. Una vez más, queremos compartir el tiempo de una experiencia estética en este lugar apartado, este observatorio llamado arte.

*Alexandra Baurès*
***Comisaria de las exposiciones***

# Geldirik

Gelditasuna ez da existitzen mugimendurik gabe, isiltasuna existitzen ez den bezala hitzik gabe. Gauza bat bestearen ukapenetik jaiotzen da: ez mugitzea, ez hitz egitea. Ez egitea. Bada zerbait korporal eta mentala horretan. Grabitazio-indarra gorputzaren gainean eragiten da, eta gorputzak Lurrarekin bat egiten du eta geldirik geratzen da, sustraiak botatzen dituen zuhaitz bat bezala. Behar bat izan daiteke, edo desira bat. Keinu politiko bat ere izan daiteke, gorputzarekin ezetz esatea. Bartleby etortzen zait gogora, Herman Melvilleren pertsonaia; haren irudi harrotua bulego xarmagabe batean, "erortzear dagoen tenplu bateko azken zutabea nola". Gogora etortzen zaizkit M15eko eserialdiak ere bai, gorputzak eremu publikoa okupatzen. Gelditasuna boterearen kontrako erresistentzia-ekintza bilakatzen da. Baina orain buruan ditut paperak berritzeko zain espaloietan orduak ematen dituzten pertsonak; oraingo honetan, boterea eragiten dute haien gainean. Gorputza kontrolerako bitarteko gisa agertzen da, baina baita ere matxinadarako elementu gisa.

Baina zer gertatzen da intimitatean? Pertsona bat zuhaitz baten azpian dago etzanda, hodeiei begira. Ez dago ezer bitxirik, atseden hartzen ari da. Baina pertsona hori bera jendez betetako kale bateko eserleku batean etzaten bada, haren jarrerak arreta ematen du. Hiriak mugimendurako daude prestatuta. Zirkulatu, lan egin, gastatu, erosi. Gauza guztiak ibilian dabiltza: pertsonak, merkantziak, dirua. Gelditzen direnak gizartean parte hartzen ez dutenak dira, arloteak, langabeak edo erretiratuak, hau da, galtzaileak edo zaharrak. Bien bitartean, irabazten dutenek, lasterka egiten dutenek, antsietate krisiak izaten dituzte. Stop. Ikerketa biologiko batzuen arabera, gizaki garaikideon burmuina Cro-Magnongo gizakienaren ia berdina da. Orduko gizaki horiek, behin oinarrizko beharrak asetuta ez zuen lan egiteko beharrik, aisialdi asko zuen. Garai haietan espeziearen bilakaera izan zen sormenaren eztanda bati esker. Neurozientzialariek ikertu dute: burmuinari oso ongi datorkio aktibitate falta, egoera horretan funtzionatzen du hobekien.

Artearen alorrean, ez egitearen ideia oso garatua dago, kritika sozial gisa, artearen merkatuaren kritika gisa edo sormenerako metodologia bezala. 1968an, Robert Filliou artista frantsesak *Baliokidetasun printzipioa* eratu zuen, eta hori objektu, ekintza zein ideiei aplikatu zien. Arau honen arabera, hiru egoerak –ongi egina, gaizki egina, egin gabe– gauza bakoitzaren alde baliokide eta eratzaileak dira. Robert Filliouk ezagutu zuen mundua ez da gaurko mundua, baina haren ideiak berreskuratu nahi ditugu, akatsaren balioaren gaineko ideiak, ez egitearen gainekoak, edo alfertasunarenak, alfertasuna hartuta pentsamenduen jarioa bultzatzen duen gogo-aldarte gisa.

**MAPAMUNDITARRAK 2018**k beren obretan kontzeptu horiek garatu dituzten bederatzi artista gonbidatu ditu, geraldia zenbait perspektiba ezberdinetatik lantzen dituztenak. Haien lana ikasturte hasiera honetan ikusten ahalko da, erakusketa zein lantegietan, Iruñeko zenbait kultur espaziotan. Gainera, programa osatzeko, egile-zinema ziklo bat izanen da gai horri berari buruzkoa. Berriz ere esperientzia estetiko baten denbora partekatu nahi dugu bazter honetan, arte izeneko behatoki honetan.

*Alexandra Baurès*
***Erakusketen komisarioa***




# EXPOSICIONES
# ERAKUSKETAK



Eva Fàbregas,
***Picture yourself as a block of melting butter, 2018***
© CCA 2018 Royal College of Art, in partnership with Gasworks and Resonance FM, London. Foto/Argazkia: Martim Ramos

## *EVA FÀBREGAS*
### *Imagina que eres un bloque de mantequilla deshaciéndose*

La relajación ya no es una cuestión de parar y respirar hondo. Se ha vuelto un asunto que está en manos de una industria sofisticada que se esmera en ofrecer experiencias somáticas regeneradoras a un público que paga por ello. *Imagina que eres un bloque de mantequilla deshaciéndose* es un ejercicio ya clásico de meditación al que alude **Eva Fàbregas** en esta instalación en la que invita a los espectadores a permanecer unos minutos. En el espacio expositivo transformado en una sala de gimnasio "high-tech", se pueden acomodar en unas estructuras hinchables que acogen generosamente la forma del cuerpo. Ahí una melodiosa voz femenina les propone cerrar los ojos y les guía en un viaje mental y sensorial. Poco a poco se dibuja para el oyente un paisaje sonoro en el que la piel se funde con la textura sintética del mobiliario, y en el que lo artificial conecta con lo natural y sensual de la persona. Pasen y prueben.

Eva Fàbregas (Barcelona, 1988) vive y trabaja en Londres.
***www.evafabregas.com***



## *EVA FÀBREGAS*
### *Imajinatu desegiten ari den gurin bloke bat zarela*

Orain, erlaxatzea ez da gelditzea eta arnasa sakon hartzea. Orain industria sofistikatu baten esku dagoen zerbait bilakatu da, horren truke ordaintzen duen publikoari esperientzia somatiko birsortzaileak eskaintzen saiatzen den industria bat. *Imajinatu desegiten ari den gurin bloke bat zarela* klasiko bilakatu den meditazio-ariketa bat da, eta **Eva Fàbregas** horretaz ari da ikusleak bertan minutu batzuez egotera gonbidatzen dituen instalazio honetan. "High-tech" gimnasio-areto bat bilakatu den erakusketa-eremu honetan, eroso jar daitezke gorputzaren forma eskuzabaltasunez hartzen duten egitura puzgarri batzuetan. Han, emakume-ahots melodiatsu batek begiak ixteko proposatu, eta bidaia mental eta sentsorial batean gidatuko ditu. Pixkanaka, entzuleentzat soinu-paisaia bat marrazten da non azala altzarien testura sintetikoekin bat egiten duen, eta artifiziala dena pertsonaren izaera natural eta sentsualarekin lotzen den. Sartu eta probatu.

Eva Fàbregas (Bartzelona, 1988) Londresen bizi da, eta bertan egiten du lan.
***www.evafabregas.com***



Thomas Tudoux, ***Récréation, 2015*** © Thomas Tudoux



Thomas Tudoux, ***Promenade, 2011-2014*** © Thomas Tudoux

## *THOMAS TUDOUX*
## *Paseo/siesta; Recreo; Griales*

Hoy día parece que los planes empresariales que buscan la mejora continua y la excelencia de los servicios se aplican a todas las esferas de la sociedad. En sus proyectos, **Thomas Tudoux** señala irónicamente cómo la competitividad regula nuestro empleo del tiempo desde la más tierna infancia. En 2015, llevó a cabo un experimento casi sociológico en un colegio de educación primaria de la localidad de Vesseaux (Francia). Propuso a las niñas y a los niños que pusieran notas a sus *Recreos* y conversó con ellas y ellos sobre el sistema de evaluación que rige sus vidas en el centro. Por otra parte, en su serie de dibujos a lápiz *Paseo/ Siesta,* se fijó en el mobiliario urbano que se pone a disposición de los transeúntes para que hagan ejercicio y estén constantemente circulando. Asimismo, en la serie escultórica *Griales*, recalca cómo la consecución de premios resulta efímera, ya que en este trabajo los trofeos son de cera y se acaban consumiendo como velas.

Thomas Tudoux (Barbezieux, Francia, 1985) vive y trabaja en Rennes, Francia.
***www.thomastudoux.fr***

**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª planta**

## *THOMAS TUDOUX*
## *Paseoa/siesta; Jostaldia; Grialak*

Gaur egun ematen du etengabeko hobekuntza eta zerbitzuen bikaintasuna bilatzen duten enpresa-planak gizartearen maila guztietan aplikatzen direla. Bere proiektuetan, **Thomas Tudoux**ek modu ironikoan adierazten du nola arautzen duen lehiakortasunak geure denboraren erabilera haurtzarotik bertatik. 2015ean, esperimentu ia soziologiko bat egin zuen lehen hezkuntzako eskola batean, Vesseaux herrian (Frantzia). Haurrei proposatu zien *Jostaldiei* nota jartzeko, eta haiekin solastu zen eskolan haien bizitza gobernatzen duen ebaluazio-sistemari buruz. Bestalde, arkatzez egindako *Paseoa/Siesta* marrazki-sailean, kirola egin eta etengabe ibilian egon daitezen oinezkoen esku jartzen diren hiri-altzariei erreparatu zien. Halaber, *Grialak* eskultura-sailean, azpimarratzen du sariak eskuratzea iragankorra dela, lan horretan sariak argizarikoak baitira eta, kandelak nola, azkenean deuseztatzen baitira.

Thomas Tudoux (Barbezieux, Frantzia, 1985) Rennes-en (Frantzia) bizi da, eta bertan egiten du lan.
***www.thomastudoux.fr***

**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua**



Agnès Geoffray, ***Flétrissure,*** série ***Les Suspendus, 2010-2011*** © Agnès Geoffray



Agnès Geoffray, ***M. Vernet et Pierre, 2013*** © Agnès Geoffray

## *AGNÈS GEOFFRAY*

### *Los suspendidos; Gestos incidentales; El señor Vernet y Pierre*

La fotografía como imagen fija confronta al espectador con la intensidad del tiempo y la muerte, situando el tiempo que quedó fijado en la copia de papel ante el propio transcurrir de su vida. Las fotografías que crea **Agnès Geoffray** requieren ser miradas con detenimiento. Sea mediante la transformación de documentos encontrados en archivos o mediante la puesta en escena, la artista reúne fotografías que albergan un misterio. Los cuerpos vivos o inertes que aparecen en sus imágenes ejecutan gestos o adoptan posturas que se encuentran en latencia. Esculpidos por un instante y para siempre, suscitan preguntas al espectador que no obtendrá respuestas. Así, en la serie *Suspendidos* se inspira en la pintura difamatoria de la época del Renacimiento italiano y en la figura del ahorcado. En *El señor Vernet y Pierre* coreografía un ritual entre un hombre y un adolescente que recuerda una sesión de hipnosis. Y en *Gestos incidentales* retoca imágenes históricas para suavizar su carga dramática y las junta con imágenes aparentemente banales.

Agnès Geoffray (Saint-Chamond, Francia, 1973) vive y trabaja en París.
***www.agnesgeoffray.com***

**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª planta**

## *AGNÈS GEOFFRAY*

### *Esekiak; Kasualitatezko keinuak; Vernet jauna eta Pierre*

Argazkiek, irudi finko gisa, aurrez aurre jartzen ditu ikusleak eta denboraren eta heriotzaren intentsitatea, paperezko kopian finkatuta geratutako denbora norberaren bizitzaren joanaren aurrean jarrita. **Agnès Geoffray**k sortzen dituen argazkiak arretaz begiratzekoak dira. Hala artxiboetan aurkitutako agiriak eraldatzearen bidez nola eszenaratzeen bidez, artistak barnean misterio bat duten argazkiak biltzen ditu. Haren irudietan ageri diren gorputzak edo hilotzak sortasun egoeran dauden keinuak egin edo jarrerak hartzen dituzte. Istant batean eta betiko zizelkatuta, erantzun gabe gelditiko diren galderak sorrarazten dizkie ikusleei. Horrela, *Esekiak* sailean Italiako Errenazimentuko garaiko difamazio-pintura eta urkatuen irudia hartzen ditu inspirazio-iturri. *Vernet jauna eta Pierre* lanean gizon baten eta nerabe baten arteko erritual bat koreografiatzen du, hipnosi-saio bat gogora ekartzen duena. Eta *Kasualitatezko keinuak* lanean irudi historikoak egokitzen ditu horien karga dramatikoa arintzeko, eta itxuraz hutsalak diren irudiekin elkartzen ditu.

Agnès Geoffray (Saint-Chamond, Frantzia, 1973) Parisen bizi da eta bertan egiten du lan.
***www.agnesgeoffray.com***

**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua**





Tabaimo (Tabata Ayako),
***Hanabi-ra, 2003***
fracpicardie | des mondes dessinés © Tabaimo (Tabata Ayako)

## *TABAIMO (TABATA AYAKO)*
## *Hanabi-ra (La caída de los pétalos)*

Los dibujos de **Tabaimo** revelan la otra cara de esa sociedad japonesa aparentemente tan ordenada y reglada. La realidad que presenta en sus obras evoca la cultura de su país de origen pero desliza en una fantasía que aparece como un mundo de posibles, colindante con la realidad más tangible. También la estética de sus dibujos recuerda al pintor Hokusai o el arte del grabado japonés, aunque la complementa con sofisticadas técnicas de animación por ordenador. En el vídeo *Hanabi-ra* aparece un hombre desnudo de espaldas en medio de la oscuridad. Puede que se trate de un Yakusa, un miembro de la mafia japonesa, porque su cuerpo está cubierto de tatuajes, señal de su pertenencia a un clan. Poco a poco la imagen se anima. Los pétalos de los crisantemos tatuados se desprenden del cuerpo. Atraviesa la pantalla un cuervo, luego una carpa, una abeja voltea. Los pétalos siguen cayendo, la vida pasa y se acerca a su final.

Tabaimo (Tabata Ayako) (Hyogo, Japón, 1975) vive y trabaja en Tokio.
***www.jamescohan.com/artists/tabaimo***

**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª planta**

## *TABAIMO (TABATA AYAKO)*
## *Hanabi-ra (Petaloen erorketa)*

**Tabaimo**ren marrazkiek ustez hain ordenatu eta arautua den gizarte japoniarraren ifrentzua azaleratzen dute. Bere obretan erakusten duen errealitateak bere jatorrizko herrialdearen kultura ekartzen du gogora, baina izan daitezkeen aukeren mundu baten fantasiara irristatzen da, errealitate ukigarrienarekin mugakide. Gainera, egilearen marrazkien estetikak Hokusai pintorea ekartzen du gogora, edo japoniar grabatuaren artea, ordenagailu bitarteko animazio-teknika sofistikatuekin osatua. *Hanabi-ra* bideoan gizon bat ageri da bizkarrez, biluzik, iluntasunaren erdian. Yakusa izan daiteke, Japoniako mafiako kide bat, gorputza tatuajez beteta baitu eta horrek klan bateko kidea dela esan nahi baitu. Pixkanaka, irudia bizia hartzen hasten da. Tatuatutako urrelilien petaloak gorputzetik askatzen dira. Bele batek pantaila zeharkatzen du, gero karpa batek; erle bat irauli egiten da. Petaloek erortzen jarraitzen dute, bizitzak aurrera egiten du eta amaierara iristen ari da.

Tabaimo (Tabata Ayako) (Hyogo, Japonia, 1975) Tokion bizi da, eta bertan egiten du lan.
***www.jamescohan.com/artists/tabaimo***

**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua**






Patxi Araujo, ***33 notas*, 2018** © Patxi Araujo

## PATXI ARAUJO
## 33 notas

*33 notas* es el autómata de la lentitud. Su función es ralentizar, hasta casi el detenimiento, los 16 primeros compases (las 33 primeras notas) del Himno de la Internacional Socialista. Su cuerpo tecnológico se alimenta del flujo ininterrumpido de imágenes de informativos en un monitor de TV. Transmite esa información a una pianola con un ritmo tan pausado que la melodía, cuyo sonido se emite por un megáfono, termina por volverse irreconocible. En esta transformación intervienen elementos interrelacionados entre sí mediante procesos de captura, transducción, amplificación y retroalimentación. *33 notas* es una pieza visual, mecánica y sonora que propone una experiencia a contracorriente del levantamiento al que alienta la letra de la canción del movimiento obrero. Frente al dominio de las pantallas y de sus discursos tendenciosos, invita al recogimiento y a la escucha del silencio, entre las notas.

*33 notas* es la obra ganadora de la convocatoria de residencia artística organizada por el Centro Huarte, en colaboración con Mapamundistas, durante el verano 2018.

Patxi Araujo (Pamplona, 1967) vive en Pamplona y trabaja en Bilbao.
**patxiaraujo.com**

**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª planta**

## PATXI ARAUJO
## 33 nota

*33 nota* moteltasunaren automata da. Haren funtzioa da moteltzea, ia geldiarazi arte, Internazionalaren lehenengo 16 konpasak (lehenengo 33 notak). Haren gorputz teknologikoa albistegien irudien etengabeko jarioarekin elikatzen da, telebista monitore batean. Informazio hori pianola bati transmititzen dio oso erritmo motelean, hainbestekoan non megafono bidez emititzen den melodia ia ezagutezina bilakatzen den. Eraldaketa honetan haien artean loturik dauden elementuek hartzen dute parte, harrapaketa-, transdukzio-, anplifikazio- eta atzeraelikadura-prozesuen bitartez. *33 nota* pieza bisual, mekaniko eta soinuduna da, eta haize kontrako esperientzia proposatzen du, langile-mugimenduaren kantuaren hitzek bultzatzen duten altxamenduaren aurrean. Pantailen eta horien diskurtso alderdikoien aurrean, nor bere baitara biltzeko eta noten artean isiltasuna entzuteko gonbidapena egiten du.

*33 nota* obrak Uharte zentroak Mapamunditarrakekin elkarlanean antolatutako egonaldi artistikorako deialdia irabazi zuen, 2018ko udarako.

Patxi Araujo (Iruña, 1967) Iruñean bizi da, eta Bilbon egiten du lan.
**patxiaraujo.com**

**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua**



Susana Velasco,
***Palombière de Boursicou, Paulhiac***
***(Lot-et-Garonne, FR), 2011-2016*** © Susana Velasco

Susana Velasco,
***Sección transversal de la segunda línea de defensa republicana***
***(Villaverde-Madrid y Río Manzanares), 2011-2016*** © Susana Velasco

## *SUSANA VELASCO*
## *Arquitectura-ojo*

**Susana Velasco** es arquitecta e investiga el gesto de construir que surge del propio cuerpo para habitar un lugar. La *arquitectura-ojo* consiste en un envoltorio autoconstruido y hecho a medida del cuerpo que se erige para observar el entorno próximo. En esta edificación se abren huecos, mirillas o troneras, orificios que prolongan la mirada y a través de los cuales la percepción del exterior se ve intensificada. En el Batán, se presentan planos y fotografías de tres tipos de observatorios de la geografía cercana: cabañas para la caza de la paloma del Suroeste francés y del Pirineo navarro; trincheras y fortificaciones de la Guerra Civil española y la Ermita del Santo Isidro de Toledo, una obra de **Susana Velasco** que construyó como una cámara oscura. Además, la muestra ofrece una aproximación al paisaje inmediato del río Ulzama y se abre con un taller de construcción de pequeñas cabañas de madera en el que se pondrá en común ejemplos locales de este tipo de arquitectura.

Susana Velasco vive y trabaja en Madrid.
**www.susanavelasco.net**



## *SUSANA VELASCO*
## *Arkitektura-begia*

**Susana Velasco** arkitektoa da eta gorputzetik beretik leku bat betetzeko sortzen den keinua ikertzen du. *Arkitektura-begia* bere burua eraiki duen bilgarri bat da, hurbileko ingurua behatzeko jasotzen den gorputz baten neurrira egindakoa. Eraikuntza honetan baoak, behatxuloak edo itsu-leihoak irekitzen dira, begirada luzatzen duten zuloak, kanpoaldearen pertzepzioa handitua bilakatzen dutenak. Pilategian, hurbileko geografiaren hiru behatoki mota ezberdinen planoak eta argazkiak aurkezten dira: usoaren ehizarako etxolak Frantziako hegomendebaldean eta Nafarroako Pirinioetan; Espainiako Gerra Zibileko lubaki eta gotorlekuak, eta Toledoko Santo Isidro ermita, **Susana Velasco**ren obra bat, ganbera ilun baten moduan eraikia. Horretaz gain, erakusketak Ultzama ibaiaren paisaiarako hurbilpena ere eskaintzen du, eta egurrezko etxola txikiak eraikitzeko lantegi gisa ere irekitzen da, non taldean partekatuko baitira arkitektura-mota horren tokiko adibideak.

Susana Velasco Madrilen bizi da, eta bertan egiten du lan.
**www.susanavelasco.net**



Amaia Molinet, ***Das Paradies II, 2018*** © Amaia Molinet

## *AMAIA MOLINET*
## *Das Paradies (El paraíso)*

La palabra “Yanna” designa el paraíso islámico. Aunque solo significa jardín, se describe en el Corán y el Hadiz como un paisaje de grandes árboles y montañas hechas con almizcle, entre las que los ríos fluyen por valles de perlas y rubíes, y donde se encuentran caballos y camellos de una blancura deslumbrante. Si este lugar existiera en la tierra se podría parecer al paisaje de los Alpes. Posiblemente sea la razón por la que las localidades austriacas de Zell am See y Kaprun reciben cada año numerosos turistas procedentes de los países árabes, fascinados por una geografía tan distinta al paisaje árido de la península arábica o del Magreb. **Amaia Molinet** realizó el viaje a estos parajes para encontrarse con los frondosos bosques, las grandes montañas, los ríos y torrentes, y los blancos caballos. Ahí sacó imágenes que muestra en la sala de exposición en un formato de instalación, tratando de revelar cómo las creencias inducen nuestra mirada sobre la naturaleza.

Amaia Molinet (Navarra, 1988) vive y trabaja en Bilbao.
**amaiamolinet.com**



## *AMAIA MOLINET*
## *Das Paradies (Paradisua)*

“Yanna” hitzak paradisu islamikoa izendatzen du. “Lorategi” esan nahi du, besterik ez; hala ere, Koranean eta Hadithean zuhaitz handiko eta musketaz egindako mendiak dituen paisaia moduan deskribatzen da, non ibaiak perla- eta errubi-ibarren artean ibiltzen diren eta kolore zuri itsugarriko zaldi eta gameluak dauden. Lurrean leku hori existituko balitz Alpeetako paisaiaren antza izanen luke. Ziurrenik horregatik jasotzen dituzte Austriako Zell am See eta Kaprun herriek herrialde arabiarretatik etorritako horrenbeste turista, Penintsula arabiarreko edo Magrebeko paisaia idorraren aldean hain bestelakoa den geografiarekin liluratuta. **Amaia Molinet**ek bidaia egin zuen bazter horietara baso hostotsuekin, mendi handiekin, ibai eta uharrekin eta zaldi zuriekin bat egiteko. Bertan hartu zituen erakusketa-aretoan instalazio-formatuan paratu dituen argazkiak, erakutsi nahian zein modutan eragiten duten sinesmenek natura begiratzeko dugun moduan.

Amaia Molinet (Nafarroa, 1988) Bilbon bizi eta bertan egiten du lan.
**amaiamolinet.com**





José Ramón Ais, ***Parque natural nº11, 2015***, Galería Alegría, © José Ramón Ais

José Ramón Ais, ***Parque natural nº12, 2015***, Galería Alegría, © José Ramón Ais

## *JOSÉ RAMÓN AIS*
## *Parque natural*

Los parques nacionales aparecieron en el siglo XIX, en plena revolución industrial, en Estados Unidos y en Europa, como respuesta institucional a la explotación del medio natural. Nacieron con la voluntad de preservar la flora y la fauna, y de conservar cierta idea de naturaleza original. La serie *Parque Natural* de **José Ramón Ais** ofrece vistas a parques naturales ficticios, paisajes de edén. Son imágenes construidas en torno a referencias pictóricas, mitos o estereotipos y a partir de fotografías tomadas en lugares cercanos. En una, una lejana montaña recuerda al monte Cervino, el más famoso de los Alpes. En otra, aparece una isla desierta, aludiendo el mito de los trabajos de Hércules. En otra, se muestra un paisaje montañoso de noche, haciendo referencia a la pintura del Barroco español. En todas, un camino y un río proponen una ruta por una sucesión de escenarios naturales e invitan a pasear con la mente.

José Ramón Ais (Bilbao, 1971) vive y trabaja en Bilbao.
**joseramonais.com**



## *JOSÉ RAMÓN AIS*
## *Parke naturala*

Parke nazionalak XIX. mendean sortu ziren, industria-iraultza bete-betean, Estatu Batuetan eta Europan, bitarteko naturalaren ustiaketaren erantzun instituzional moduan. Flora eta fauna babesteko xedearekin sortu ziren, baita jatorrizko natura gordetzeko halako ideia batekin ere. **José Ramón Ais**-en *Parke naturala* sailak fikziozko parte naturalen bistak eskaintzen dizkigu, paradisuko paisaienak. Erreferentzia piktorikoen, mitoen edo estereotipoen inguruan eraikitako irudiak dira, hurbileko lekuetan hartutako argazkietatik abiatuta egindakoak. Horietako batean, urruneko mendi batek, Cervino Alpeetako mendi ezaguna ekartzen du gogora. Beste batean, uharte jendegabe bat ageri da, Herkulesen lanen mitoa gogora ekarriz. Beste batean, mendi-paisaia bat erakusten da, gauez, barroko espainiarraren pinturari erreferentzia eginez. Irudi guztietan bide batek eta ibai batek ibilbide bat proposatzen dute etengabeko eszenatoki naturaletan barna, eta irudimenarekin paseatzeko gonbidapena egiten dute.

José Ramón Ais (Bilbo, 1971) Bilbon bizi da, eta bertan egiten du lan.
**joseramonais.com**


Restaurante Japonés
TOKIO
C/ Joaquín Maya, 15
31006 PAMPLONA
Horario: 12:30 a 16:00 y de 20:30 a 24:00
Comida para llevar
948 24 72 72 · 652 08 77 11
Pedido mínimo 20€

# CINE
# ZINEMA

Entrada libre previa retirada de invitación,
desde una hora antes del inicio de la proyección.
Dos entradas por persona hasta completar el aforo.

**CIVIVOX ITURRAMA | PAMPLONA**

Sarrera librea, aurrez gonbidapena hartuta,
proiekzioa hasi baino ordubete lehenagotik aurrera.
Pertsona bakoitzak bi sarrera hartzen ahalko ditu, leku-kopurua bete arte.

**ITURRAMAKO CIVIVOXA | IRUÑA**



## Martes 2 de octubre, 19.30

### Gare du Nord
### (Estación del Norte)

**Claire Simon, 2012**

Francia, 1h 59 min, ficción.
VO Subtitulada en castellano.

La estación del Norte, en París, es como la plaza de un pueblo, pero un pueblo que tiene una escala global, ya que cada día miles de personas de todas partes del mundo la atraviesan. La película cuenta historias que suceden en la estación a través de personajes que se cruzan y conversan. Algunos ya no se volverán a ver pero otros entablan una relación. Así, Ismael, que hace su Doctorado de Sociología sobre la propia estación, conoce a Mathilde, una profesora de Historia que sufre una enfermedad, y poco a poco se enamoran. También están Sacha, que busca a su hija adolescente desaparecida, y Joan, una antigua alumna de Mathilde, que salta de un tren a otro, sin lograr conciliar sus horarios laborales con su vida familiar.

## Urriak 2, asteartea. 19:30

### Gare du Nord
### (Iparraldeko geltokia)

**Claire Simon, 2012**

Frantzia, 1 ordu eta 59 min.; fikzioa.
Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin

Pariseko Gare du Nord herri bateko plaza bezalakoa da, baina eskala globala duen herri bat, mundu osoko milaka lagunek gurutzatzen baitute egunero. Pelikulak geltokian gertatzen diren historiak kontatzen ditu, gurutzatzen diren eta elkarri hitz egiten dioten pertsonaien artekoak. Batzuk ez dute berriz elkar ikusiko, baina beste batzuek harreman bat hasiko dute. Horrela, geltokiari buruzko Soziologiako doktoretza egiten ari den Ismaelek Mathilde ezagutuko du, gaixotasun bat duen Historiako irakasle bat, eta pixkanaka maiteminduko dira. Sacha ere han dago, desagertutako bere alaba nerabearen bila, eta Joan, Mathilderen ikasle ohia, tren batetik bestera saltoka laneko ordutegiak eta familiako bizitza bateragarri ezin eginez.





## Martes 9 de octubre, 19.30

### Bird people

**Pascale Ferran, 2012**

Francia, 2h 07 min, ficción.
VO Subtitulada en castellano.

La película transcurre en el Hotel Hilton, en las proximidades del aeropuerto internacional de Roissy, un no-lugar cuyas ventanas dan a las pistas de despegue. Ahí llega Gary desde San Francisco para una reunión relámpago en París. Pero pocas horas antes de continuar su viaje hacia Dubai, padece un ataque de ansiedad, cansado por una profunda crisis vital, y decide no coger el vuelo. Luego tomará otras decisiones que cambiarán drásticamente su vida. En el hotel, trabaja Audrey, limpiando las habitaciones. Es una joven estudiante, pero la carga de trabajo es tal en el hotel que ha tenido que abandonar los estudios. A la par que Gary, Audrey experimenta algo extraordinario, una metamorfosis.

## Urriak 9, asteartea. 19:30

### Bird people

**Pascale Ferran, 2012**

Frantzia, 2 ordu eta 7 min.; fikzioa.
Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin

Pelikula Hilton hotelean gertatzen da, Roissy nazioarteko aireportuaren inguruetan, leihoetatik aireratze-pista erakusten duen ez-leku bat. Hara iritsi da Gary San Frantziskotik, Parisen bilera espres bat egiteko. Baina bidaian Dubairantz jarraitu baino ordu batzuk lehentxeago antsietate krisi bat izaten du, bizi-krisi sakon batekin nekatuta, eta hegazkina ez hartzea erabakitzen du. Gero beste erabaki batzuk hartuko ditu, bere bizitza goitik behera aldatuko dutenak. Hotelean, Audreyk egiten du lan, gelak garbitzen. Ikasle gazte bat da, baina hainbesteko lana du hotelean ikasketak utzi behar izan dituela. Garyk bezala, Audreyk ere ezohiko bizipena izanen du, metamorfosia.





## Martes 16 de octubre, 19.30

**La jeune fille sans mains**
**(La doncella sin manos)**

**Sébastien Laudenbach, 2016**
Francia, 1h 16 min, animación.
VO Subtitulada en castellano.

Esta película es una adaptación de un cuento de los hermanos Grimm, un cuento cruel en el que un molinero hambriento da su hija al diablo para conseguir un río de oro. Pero las manos de la joven son demasiado puras para que se la lleve el demonio y se las corta antes de huir. A pesar de la oscuridad del texto, los dibujos hechos a mano por Sébastien Laudenbach se suceden con levedad e impregnan el relato de luz y color. Y si trata los temas de inmoralidad y cobardía con gravedad, también aborda con total naturalidad la sexualidad y el amor, ofreciendo una oda a la vida y al arte.

## Urriak 16, asteartea. 19:30

**La jeune fille sans mains**
**(Eskurik gabeko dontzeila)**

**Sébastien Laudenbach, 2016**
Frantzia, 1 ordu eta 16 min.; animazioa.
Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin

Pelikula hau Grimm anaien ipuin baten egokitzapena da, ipuin krudel bat, zeinean goseak dagoen errotari batek alaba deabruari ematen dion urrezko ibai bat lortzeko. Baina gaztearen eskuak aratzegiak dira deabruak eramateko eta ihes egin baino lehen moztu egiten ditu. Testuaren iluntasuna gorabehera, Sébastien Laudenbachek eskuz egindako marrazkiak arintasunez pasatzen dira, eta argiz eta kolorez blaitzen dute kontakizuna. Eta larritasunez tratatzen baditu ere immoralitate eta koldarkeriaren inguruko gaiak, naturaltasun osoz jorratzen ditu sexualitatea eta maitasuna, eta bizitzaren eta artearen oda bat eskaintzen digu.






## Martes 23 de octubre, 19.30

**Tous au Larzac**
**(Todos al Larzac)**

**Christian Roaud, 2011**
Francia, 2h, documental.
VO Subtitulada en castellano.

Esta película relata la lucha victoriosa de los campesinos del Larzac, en el sureste de Francia, contra la expropiación de sus tierras por el Estado Francés para la ampliación de un campo militar. Este movimiento de resistencia tuvo lugar entre 1971 y 1981 y aunque partió de una reivindicación local alcanzó rápidamente una amplitud nacional. Mediante los testimonios de nueve de los campesinos más activos del colectivo de 103 agricultores que se comprometieron a defender sus tierras, y con la selección de imágenes de archivos, el film presenta la historia de un movimiento no violento que se ha convertido con el tiempo en un símbolo de los movimientos sociales de desobediencia.

## Urriak 23, asteartea. 19:30

**Tous au Larzac**
**(Denok Larzac-era)**

**Christian Roaud, 2011**
Frantzia, 2 ordu; dokumentala.
Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin

Pelikula honek Larzaceko (Frantziako hego-ekialdea) nekazarien borroka kontatzen du, irabazitako borroka, Frantziako estatua ahalegindu baitzen nekazarien lurrak desjabetzen eremu militarra handitzeko. Erresistentzia-mugimendu hori 1971 eta 1981 bitarte izan zen, eta tokiko aldarrikapen batetik abiatu bazen ere, nazio mailako indarra hartu zuen berehala. Beren lurrak defendatzeko konpromisoa hartu zuten 103 nekazariek osatutako kolektiboko bederatzi baserritar aktiboenetakoen testigantzen bidez, eta aukeratutako artxiboko irudiekin, filmak indarkeriarik gabeko mugimendu bat aurkezten digu, denborarekin desobedientziaren gizarte-mugimenduen sinbolo bilakatu dena.

camplus Pamplona

Una residencia *de* **estudiantes**

**Nueva y Diferente**

*en el* ♥ *de la* ciudad



***Ven a visitarnos, o solicita información en:***

**info@camplus.com**

Avda. de Galicia 20
31003, Pamplona

**948030100**

camplus Pamplona


**ENCUENTROS Y TALLERES**
**TOPAKETAK ETA LANTEGIAK**



Susana Velasco, ***A partir de fragmentos dispersos (Proceso), 2017*** @ Susana Velasco

Christina Schultz, 2016 © Christina Schultz



## ENCUENTRO

## TOPAKETA

**Viernes 21 de septiembre, 19.00**

**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª Planta y Horno**

### Inauguración de MAPAMUNDISTAS 2018

Visitaremos la exposición en compañía de **Agnès Geoffray, Eva Fábregas** y **Patxi Araujo** quienes nos hablarán de sus trabajos. Charlaremos con ellos sobre la lentitud como respuesta al flujo de imágenes y de sonidos que se interpone entre nosotros y la realidad, sobre el papel del creador y el lugar del espectador.

**Irailak 21, ostirala. 19:00**

**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua eta Labean**

### MAPAMUNDITARRAK 2018ren inaugurazioa

**Agnès Geoffray, Eva Fábregas** eta **Patxi Araujo**rekin erakusketak bisitatuko ditugu, eta artistek beren lanei buruz hitz eginen digute. Haiekin solastuko gara gelditasunari buruz, gure eta errealitatearen artean sartzen den irudi eta soinuen fluxuari emandako erantzu gisa, sortzailearen paperari buruz eta ikusleak duen lekuari buruz.

# TALLER

## Sábado
## 22 de septiembre

### BATÁN DE VILLAVA

***Observatorios y guaridas (percibir y dar forma)***

Un taller de **Susana Velasco**

Descubriremos nuestra capacidad innata para idear y construir espacios arquitectónicos. Observaremos nuestro cuerpo mediante ejercicios de conciencia corporal y nos fijaremos en el espacio del Batán y sus aperturas al exterior. Después de esta aproximación construiremos pequeñas esculturas con madera, una suerte de comunidad de cabañas a pequeña y mediana escala que pasarán a formar parte de la exposición.

Este taller se dirige a esas personas que estén interesadas en una relación sensible entre la arquitectura y el paisaje.

**Susana Velasco** vive y trabaja en Madrid. Es arquitecta e investiga la arquitectura como lugar de mediación entre dos escalas: la del cuerpo y la del territorio. Sus trabajos buscan dar una materialidad a los vínculos entre las comunidades y el paisaje.

**www.susanavelasco.net**

**Horarios:**

De 11.00 a 13.00 (sesión para niñas y niños de 7 a 12 años)

Y de 17.00 a 20.00 (sesión para jóvenes y adultos)

Plazas limitadas. Participación gratuita con inscripción obligatoria.

**Inscripción:**
www.mcp.es/actividades

**Material:** cada participante traerá una fotografía de una cabaña, un observatorio, o un lugar desde donde mirar que se encuentre en Pamplona o sus alrededores.

# LANTEGIA

## Irailak 22, larunbata

### ATARRABIAKO PILATEGIA

***Behatokiak eta ezkutalekuak (hautematea eta forma ematea)***

**Susana Velasco**ren lantegia

Espazio arkitektonikoak imajinatu eta eraikitzeko berez dugun gaitasuna deskubrituko dugu. Gure gorputza behatuko dugu gorputz-kontzientziako ariketen bitartez, eta Pilategiko espazioa eta kanpoalderako irekidurak behatuko ditugu. Hurbilpen honen ondoren, egurrezko eskultura txikiak eraikiko ditugu, eskala txiki eta ertaineko etxola-komunitate moduko bat, eta sortutakoa erakusketaren parte bilakatuko da.

Lantegi hau arkitekturaren eta paisaiaren harreman sentiberan interesa dutenei zuzentzen zaie.

**Susana Velasco** Madrilen bizi da eta bertan egiten du lan. Arkitektoa da, eta arkitektura ikertzen du bi eskalen arteko bitartekaritza-leku gisa: gorputzarena eta lurraldearena. Haren lanek komunitatearen eta paisaiaren arteko loturekin materialtasuna ematea bilatzen dute.

**www.susanavelasco.net**

**Ordutegiak:**

11:00 – 13:00 (7 eta 12 urte bitarteko haurrentzat)

17:00 – 20:00 (gazte eta helduentzat)

Leku-kopuru mugatua. Parte hartzea doakoa da, baina izena eman beharra dago.

**Izen ematea:**
www.mcp.es/actividades

**Materiala:** parte-hartzaile bakoitzak etxola, behatoki edo begiratzeko aukera ematen duen leku baten argazkia ekarriko du, Iruñean edo inguruan dagoena.

## ENCUENTRO

**Jueves 27 de septiembre, 19.00**
**UPNA | Edificio del Sario**

Nos encontraremos con **Amaia Molinet** y **José Ramón Ais** en su exposición en el Campus de la Upna de Pamplona. Dialogaremos con ellos sobre la idea de paraíso y los lugares soñados, y también sobre la creación de imágenes a partir de mitos.

## TOPAKETA

**Irailak 27, osteguna. 19:00.**
**NUP | Sario eraikina**

**Amaia Molinet** eta **José Ramón Ais**ekin elkartuko gara NUPen Iruñeko campusean, haien erakusketan. Haiekin solastuko gara paradisuaren eta amestutako lekuen ideiaren inguruan, bai eta mitoetatik abiatuta irudiak sortzearen inguruan ere.

**Sábado 20 y domingo 21 de octubre**

**MUSEO DE NAVARRA**

***Laboratorio del No Hacer***

Una propuesta de **Christina Schultz**

El *Laboratorio del No Hacer* es parte de la investigación contra el trabajo que desarrolla la artista **Christina Schultz**. A lo largo de las tres sesiones, se alternará la lectura de textos sobre el no hacer y el hacer, el visionado de trabajos artísticos de referencia y ejercicios prácticos relacionados con el concepto tiempo, la fiesta y el ocio. Habrá una visita al Museo de Navarra y una clausura en modalidad de puertas abiertas en la que los participantes presentarán su propuesta colectiva no trabajada.

Este taller se dirige a personas interesadas en la idea del no hacer como medio para repensar el trabajo.

**Christina Schultz** (Múnich, Alemania, 1972) vive y trabaja en Barcelona. Los procesos colaborativos son una parte central en su obra, que puede adoptar formas cinemáticas, sonoras o performativas. Su principal interés es descubrir y discutir qué implica ser humano.

**www.christinaschultz.com**

**Horarios:**

Sábado de 11.00 a 14.00 y de 17.00 a 19.00 y domingo de 11.00 a 14.00

Plazas limitadas.

**Prezioa:** 10 €.

**Inscripción** y pago en efectivo en la taquilla del Museo de Navarra, en horario de apertura al público (del 21 de septiembre al 10 de octubre).



**Urriak 20 (larunbata) eta 21 (igandea).**

**NAFARROAKO MUSEOA**

***Ez egitearen laborategia***

**Christina Schultz**-en proposamen bat

*Ez egitearen laborategia* **Christina Schultz** artista lanaren kontra egiten ari den ikerketaren parte bat da. Hiru saioetan, tarteka, ez egiteari eta egiteari buruzko testuak irakurriko dira, erreferentziazko lan artistikoak ikusiko, eta denboraren, festaren eta aisialdiaren kontzeptuekin loturiko ariketa praktikoak eginen. Nafarroako Museora bisita izanen da, eta itxiera-ekitaldia ateak zabalik, eta horretan parte-hartzaileek landu gabeko proposamen kolektiboa aurkeztuko dute.

Lantegi hau “ez egitearen” ideian, lana birpentsatzeko bitarteko gisa, interesa dutenei zuzentzen zaie.

**Christina Schultz** (Munich, Alemania, 1972) Bartzelonan bizi da, eta bertan egiten dun lan. Prozesu kolaboratiboak parte nagusia dira haren obran, eta horiek zinema eta soinu formak zein performatiboak har ditzakete. Interes nagusia du gizaki izatea zer dakarren ikustea eta eztabaidatzea.

**www.christinaschultz.com**

**Ordutegiak:**

Larunbatean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta igandean, 11:00etatik 14:00etara

Leku-kopuru mugatua.

**Prezioa:** 10 €.

**Izen ematea** eta ordainketa, dirutan,Nafarroako Museoan, museoaren ordutegian (irailaren 21etik urriaren 10era).

# AGENDA

## EXPOSICIONES

**UPNA | Campus de Pamplona, Edificio del Sario** del 7 de septiembre al 26 de octubre:
**Amaia Molinet** y **José Ramón Ais**

**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª planta**, del 21 de septiembre al 28 de octubre: :
**Thomas Tudoux, Agnès Geoffray, Tabaimo y Patxi Araujo**

**CIUDADELA | Horno**, del 21 de septiembre al 28 de octubre: **Eva Fàbregas**

**BATÁN de Villava**, del 22 de septiembre al 28 de octubre: **Susana Blasco**

## CINE

Martes 2 de octubre, 19.30,
**CIVIVOX ITURRAMA**: *Estación del Norte*, **Claire Simon**

Martes 9 de octubre, 19.30,
**CIVIVOX ITURRAMA**: *Bird people*, **Pascale Ferran**

Martes 16 de octubre, 19.30,
**CIVIVOX ITURRAMA**: *La doncella sin manos*, **Sébastien Laudenbach**

Martes 23 de octubre ,19.30,
**CIVIVOX ITURRAMA**: *Todos al Larzac*, **Christian Roaud**

## ENCUENTROS CON ARTISTAS

Viernes 21 de septiembre, 19.00,
**CIUDADELA | Pabellón de Mixtos 1ª planta**
**inauguración** de MAPAMUNDISTAS 2018
en compañía de **Agnès Geoffray, Eva Fábregas** y **Patxi Araujo**

Jueves 27 de septiembre, 19.00,
**UPNA| Campus de Pamplona, Edificio del Sario**
encuentro con **Amaia Molinet** y **José Ramón Ais**

## TALLERES

Sábado 22 de septiembre, de 11.00 a 13.00 y de 17.00 a 20.00,
**BATÁN de VILLAVA**
*Observatorios y guaridas (construir desde el cuerpo)*, taller de **Susana Velasco.**

Sábado 20 de octubre de 11.00 a 14.00 y de 17.00 a 19.00
y domingo 21 de octubre de 11.00 a 14.00:
**MUSEO DE NAVARRA**
*Laboratorio del No Hacer,* una propuesta de **Christina Schultz**

# AGENDA

## ERAKUSKETAK

**NUP | Iruñeko Campusa, Sario eraikina.** Irailaren 7tik urriaren 26ra:
**Amaia Molinet** eta **José Ramón Ais**

**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua.** Irailaren 21etik urriaren 28ra:
**Thomas Tudoux, Agnès Geoffray, Tabaimo** eta **Patxi Araujo**

**ZIUDADELA | Labea.** Irailaren 21etik urriaren 28ra: **Eva Fàbregas**

**Atarrabiako PILATEGIA.** Irailaren 22tik urriaren 28ra: **Susana Blasco**

## ZINEMA

Urriak 2, asteartea. 19:30.
**ITURRAMAKO CIVIVOXA**: *Iparraldeko Geltokia*, **Claire Simon**

Urriak 9, asteartea. 19:30.
**ITURRAMAKO CIVIVOXA**: *Bird people*, **Pascale Ferran**

Urriak 16, asteartea. 19:30.
**ITURRAMAKO CIVIVOXA**: *Eskurik gabeko dontzeila*, **Sébastien Laudenbach**

Urriak 23, asteartea. 19:30.
**ITURRAMAKO CIVIVOXA**: *Denok Larzac-era*, **Christian Roaud**

## TOPAKETAK ARTISTEKIN

Irailak 21, ostirala. 19:00.
**ZIUDADELA | Mistoen eraikina, 1. solairua.**
MAPAMUNDITARRAK 2018ren **inaugurazioa**
**Agnès Geoffray, Eva Fábregas** eta **Patxi Araujo**rekin

Irailak 27, osteguna. 19:00.
**NUP | Iruñeko Campusa, Sario eraikina.**
Topaketa **Amaia Molinet** eta **José Ramón Ais**ekin

## LANTEGIAK

Irailak 22, larunbata. 11:00 – 13:00 eta 17:00 – 20:00.
**Atarrabiako PILATEGIA**
*Behatokiak eta ezkutalekuak (gorputzetik abiatuta eraikitzea)*, **Susana Velasco**ren lantegia.

Urriaren 20an (larunbata), 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara,
eta 21ean (igandea), 11:00etatik 14:00etara:
**NAFARROAKO MUSEOA**
*Ez Egitearen laborategia*, **Christina Schultz** proposamena

# INFORMACIÓN
# INFORMAZIOA

### BATÁN
C/ Mayor 64, junto a la Trinidad Arre, Villava.
TEL. 901 502 503
Sábados, domingos y festivos de 11:00 a 14:00 y de 17:00 a 20:00

### CENTRO HUARTE
C/ Calvario, 2. Huarte.
TEL. 948 361 457

### CIUDADELA
**Hiriartea**
Avda. del Ejercito, s/n. Pamplona.
TEL. 948 42 09 75
De martes a viernes de 18:30 a 21:00.
Sábados de 12:00 a 14:00 y de 18:30 a 21:00.
Domingo y festivos de 12:00 a 14:00.
Lunes cerrado.

### CIVIVOX ITURRAMA
C/ Esquiroz 24. Pamplona.
TEL. 948 36 66 55

### MUSEO DE NAVARRA
C/ Santo Domingo, 47. Pamplona.
TEL. 848 42 89 26
De martes a sábado de 9:30 a 14:00 y de 17:00 a 19:00.
Domingo y festivos de 11:00 a 14:00.
Lunes cerrado

### UPNA (Sario)
C/ Arrosadia s/n. Pamplona
De lunes a viernes de 8.30 a 21.00. .

### PILATEGIA
Kale Nagusia, 64 (Arreko Hirutasun Santuaren ondoan). Atarrabia.
Tel.: 901 50 25 03
Larunbat, igande eta jaiegunetan: 11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00.

### UHARTE ZENTROA
Kalbario kalea, 2 Uharte
Tel.: 948 36 14 57

### ZIUDADELA
**Hiriartea**
Armada etorbidea, zk.g. Iruña.
Tel.: 948 42 09 75
Asteartetik ostiralera: 18:30 - 21:00.
Larunbatetan: 12:00 - 14:00 eta 18:30 - 21:00.
Igande eta jaiegunetan: 12:00 - 14:00.
Astelehenetan, itxita.

### ITURRAMAKO CIVIVOXA
Ezkirotz kalea, 24. Iruña.
Tel.: 948 36 66 55

### NAFARROAKO MUSEOA
San Domingo kalea, 47. Iruña.
Tel.: 848 42 89 26
Asteartetik larunbatera: 09:30 - 14:00 eta 17:00 - 19:00.
Igande eta jaiegunetan: 11:00 - 14:00.
Astelehenetan, itxita.

### NUP (Sario)
Arrosadia kalea, zk.g. Iruña
Astelehenetik ostiralera, 08:30 - 21:00

**www.mapamundistas.com**
**info@mapamundistas.com**
**Mapamundistas**

coco
working

**desde 2010**
**espacio compartido de trabajo**
**espacio de trabajo compartido**
**asesoramiento y formación**
**presencia online**
**estudio creativo**
**gráfico | web | editorial**

El catálogo de bolsillo de MAPAMUNDISTAS 2018
se ha impreso con una tirada de 1.000 ejemplares
en Espacegrafic en Navarra, España.

**DL NA 2008 - 2015**

MAPAMUNDITARRAK 2018ko
sakelako katalogoaren 1.000 aleko tirada inprimatu da
Espacegrafic-en, (Nafarroa, Espainia).

**LG NA 2008 - 2015**

Diseño gráfico y maquetación / Diseinua eta maketazioa: Mapamundistas 2018 © Marta E. Martín (Cocoworking)

2018

MAPAMUNDISTAS

inmóvil · geldirik